

AZKEN MAHAI PAREKIDETOKO BERRIAK!!!!

- Zerrenda bakarra osatzeko denbora asko daramagu. Azken mahai parekidean LAB-ek jadanik salatu zuen ezin zirela bi zerrenda egon, deialdiaren helburua zerrenda bakar bat osatzea baitzen. Beraz, dagoeneko **behin betiko zerrenda** osatu da eta **ekainaren 30ean** Haurreskolak Partzuergoko web orrian egongo da zintzilikatua. EZ DUTE ONARTU GURE ESKAERA IREKITZEKO ERREKLAMAZIO ETA ZUZENKETETARAKO EPEA! Hala ere, zuen lekua eta puntuazioa baieztatu eta akatsik balego, jarri gurekin harremanetan.
- **LAN OSASUN BATZORDEA** osaketa atzeratu egin da.
- **Uztailaren 10ean** beste **Mahai Parekide** bat egongo da eta bertan Haurreskolak Partzuergoak hurrengo ikasturtearen **prebisioen** berri emango du. Beti bezala hau ere atzeratu egin da. **PREBISIOAK EGITEKO, PREBISIO ESKASA!** Aspaldi ari gara eskatzen baliabide eta langile gehiago enpresak kudeaketa zuzena egin ahal izateko.
- **Formakuntza:** Orain arte Maria Pardok emandako formakuntzaren jarraipena bertan behera gelditzen da, bere lanera bueltatu behar baita Hezkuntza Sailburuaren aginduz. Beraz, bi urtetako aurreikusitako formakuntza bertan behera gelditzen da. Mahai Parekidean, Partzuergoak beste lau urtetarako formakuntza plana diseinatu nahi du. Ez da serioa. Badirudi orain berriro hutsetik hasi behar dela. LABek, berriz ere, bere proposamena helarazi dio enpresari.
- **Formakuntza eta euskara:** Formakuntzako informatikako azken ikastaroak ia denak (Tolosakoa izan ezik), gaztelera hutsean izan dira. Oraindik ere horrelakoak salatzen ibili beharra! Berriro eskatzen dugu enpresak behar duela euskara plan orokorra, bere barnean izango duena langileen euskalduntzea, formazioa, euskararen erabilera enpresan...
- **Egutegia, eta Aralarren ez-legezko proposamena.** Eusko Legebiltzarrak "eskaera" egin dio (ez du behartzen) Partzuergoari 219 egunez zabaltzeko haur eskolak. Partzuergoak onartu, eta erabaki du gurasoen eskaeraren arabera hainbat zentro irekitzea Lan Hitzarmenean finkatzen diren 213 egunetan ez, baizik eta 219tan. Neurri honekin:
 - Ez da betetzen Lan Hitzarmena.
 - Erabat baztertzen da irizpide pedagogikoa, haurrak zentroaren eta hezitzailearen erreferentzia erabat galtzen baitu.
 - Berriro inprobisazioan eta kudeaketa okerrean erortzen gara. Zein zentro irekiko da? Zein langilerekin?
 - Non daude haurren eskubideak?LABek ez du neurri hau inondik inora onartuko eta ahal dugun neurrian aurka egingo diogu.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/haur>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org

informazio